



Kulturartekotasuna, ospakizun bilakatuta

Etxeberri Plazako auzokide elkarteak antolatuta, munduko kultura ezberdinen bilgune bihurtu zen Urnieta. Jende askok parte hartu zuen azokan / 8-9

Lebiton konpartsaren berragerpena

Andoaingo Erraldoiak eta Buruhandiak kalera irtengo dira larunbat honetan, Zumea plazan hasi eta Goikoplazan amaituko den kalejiran / 16



Erotikari buruzko ikastaroa abiatu da Andoaingo Jabekuntza Eskolan, Wolframen eskutik / 8-9



Paulo Jose Fernandez Alves izena zuen Urnietako kiroldegiko lanetan hil zen beharginak / 12



Egunean Behineko Aiurri taldean egin den hirugarren zozketak badu irabazlea / 15



Joseba Barandiaran Otietatik gertu, Lizarkola pasealekuan. AIURRI

Arrantzarako joera pizteko, hastapen ikastaroa

JOSEBA BARANDIARAN ARRANTZAN ADITUA

Ontza elkartean arrantzaren saileko arduraduna da azken hogeitun urtetan. Hurrengo asteetan Leitzararen ikastaroa gidatuko du, Bisitarien Etxearekin elkarlanean

Xabier Lasa ANDOAIN

Joseba Barandiaranek (Andoain, 1966) etxetik jaso zuen arrantzarako grina, eta Leitzarango ibaira itsatsita igaro ditu bere bizitzako hainbat ordu, kainaberrari helduta. Arrantzarekin gozatzaz gain, besteek ere gozatzaz deitzen erraztasunak jartzea gogoko izan du betidanik, eta Ontza elkartean arrantzaren saileko arduraduna da azken hogeitun urtetan. Hurrengo asteetan Leitzarango ibaian hastapeneko ikastaroa gidatuko du, Bisitarien Etxearekin elkarlanean. Arrantzarekin lotutako aisialdia gainbehera doala eta, Barandiaranek nahitaezkoak ikusten du arrantzaren dohain eta balioak gizar-teari zabaltzea.

Norentzat antolatu duzue ikastaroa?

Hastapeneko da, eta edonorentzat dago zuzenduta. Adin mugarik ere ez dugu jarri. Ikastarora profil desberdineko jendea

etorri liteke: arrantzaren gainean ezer ez jakin arren baduena interesa, zerbait dakiena eta hobetu nahi duena, iraganean praktikatu zuena eta utzita zeukana...

Azken batean, oso modu malguan jokatuko dugu; seiko taldea izateak ematen digu aukera nahiko pertsonalizatua izan dadin ikastaroa, eta bakoitzaren beharretara molda gaituzten. Hizkuntzaren aldetik ere, nahiz eta printzipioz euskaraz izan, ez dago arazorik ulertzea kostatzen zaionarekin gaztelaniara jotzeko.

Etorkizunari begira, hasitako bideari jarraipena eman nahi genioke; ikastaroen bideari eutsi, hastapeneko nahiz sakontzeko ikastaroak antolatuz.

Parte-hartzaileek zer eraman behar dute ikastarora?

Federatua egoteaz aparte, (oso merkea da), batez ere gogoia eta



Joseba Barandiaran Bisitarien Etxean, amuak egiteko behar den materialaz inguratuta; tornua amuari eusteko, lumak (euliak eta ninfak egiteko), kolore anitzeko hariak... AIURRI

interesa, besterik ez. Bisitarien Etxeko biltegian badago arrantzaz egiteko behar den materiala (kainabera, botak, amuak...), eta horixe erabiliko dugu. Gaur egun arrantza ez da merkea eskatzen duen materialaren ikuspegitik, eta alde horretatik, ikastaroa egokia izan liteke hutsetik hasteko asmoa eduki dezakeen parte-hartzailearentzat, aukera emango baitio dirugastua egin aurretik proba dezan arrantzak benetan asetzen dion ala ez.

Aurreratu al dezakezu pittin bat ikastaroaren edukia?

Bi zati izango ditu, teorikoa (Bisitarien Etxean) eta praktikoa (Leitzaranean ibaian bertan), eta funtsean, eulien muntaian trebatzea eta arrantza-mota desberdinen (bolarekin, koilaratxoarekin, latigoarekin...) lan-eta egingo dugu. Aparte, Arkaitz Martin Arrantza Federazioko ibai-zainak eta Olaia Garcia Bisitarien Etxeko langileak hitzaldi bana emango dute, arrantzari lotutako araua eta legeei buruz batek, eta Leitzarango bailararen eta ibaiaren bioaniztasunei buruz besteak.

Ikastaroaz baliatuta, filosofia edo mezu jakin bat transmititu

"ETXE ASKOTAN, ORAINDIK ERE TOPATUKO DUZU KAINABERA ZAHARRAREN BAT"

nahi genuke: arrantza aisialdi polita da naturarekin harremanetan jartzeko. Naturarekin gozaten duzu, ibaiarekiko errespetua eta zaintza kontuan hartuta.

Premiazkoa ikusten duzue hastapen ikastaroa...

Jarri den kuota beharrezkoa den materiala erosteko izango da, ez inor aberasteko, izan ere, arrantza sustatzea baita gure asmo bakarra. Kontua da gain-behera doazela ibaiko arrantzen praktika eta arrantzaleen kopurua. Ikusi besterik ez dago: Gipuzkoak hamar milatik gora federatu edukiko zituen iraganean, gaur egun, ordea, ez dakit bi milara iristen ote diren. Gazteak ez dira hurbiltzen, hori da errealitatea.

Iraganean, Andoaingo gazteen eta helduen artean egundoko zaletasuna bizi zen arrantzarako...

Halaxe da. Nahikoa zen kainabera bat edukitzea, eta bezperan txitxareak harrapatzea. Asteburuetan-eta, Andoainen makina bat gazterentzat nahiko normala izaten zen goizean goiz jaiki eta Leitzaranean abiatzea. Etxe askotan, oraindik ere topatuko duzu kainabera zaharraren bat, gordeta.

Zeintzuk dira arrazoiak, ohitura hori galbidean egon dadin?

Arrazoi ugari daude, nire ustez. Hasteko, gazteen artean ez da arrantzarako zaletasuna sustatzen. Eta ezarri diren arau eta legeek ez dute batere laguntzen, nolabait, profesionalizatu eta

gutxienez, eta kasik ezinezkoa zaio eguna ikasketekin eta eskolaz kanpoko ekintzekin beteta bizi den haur edo gazte barentzat...

Bestalde, haur edo gazte horri naturak ez badio deitzen, nekez piztuko zaio arrantzarako joera. Ez dago erraza kontua, baino beste aisialdi mota askorekin egiten den eran egin liteke ahalgina; interesa pizteko kanpainen eskutik, etxetik hasita eta gizarteko hainbat eremuetan jarraituz. Gurasoak gainean egon daitezke, baina ahalgin handia eskatzen du horrek; ero-soagoa da mugikorraren edo PlayStationaren esku uztea seme-alabak.

Noiz eta nola egin daiteke arrantza Leitzaranean, egun?

Leitzaranean ibaiari dagokionez, hil gabeko arrantza bakarrik egin daiteke. Bi espezie arrantzatu litezke: bertako amuarrain komuna eta Amerikatik ekarritako ortzadar-amuarraina; azken hori antzutu askatzen da, bestearekin ernalketarik ez gertatzeko. Arrantzarako eremu libre, Labordeko (Olaberri) zentral hidroelektrikoko presatik honnuta, Oria ibaiarekin bat egin artekoa da. Haruntza, Nafarroa aldera alegia, arrantza-esparrua ezarri da (irailetik martxora bitarte), eta bertan arrantza egiteko eguneko 10 euro ordaindu beharra dago. Leitzarango bide berdean autoek mugikortasuna mugatua edukitzea jarri zen arrazoitza koto edo esparruen sistema ezartzeko orduan, baina egin zezaketen Nafarroan bezala, arrantzara joan nahi den aldiko baimen berezi bat ateratzeko, alegia. Leitzaranean ibaiaren paraisua da arrantzaleentzat. Gipuzkoan eta Euskadin arrantzarako ezinbesteko erreferentzia

Ibai-arrantza ikastaroa Leitzaranean

Ibai arrantzako hastapen ikastaroa, teorikoa eta praktikoa.

- **Iraupena:** 15 ordu. Lau igande goizetan (09:30-12:30). Urriaren 31n hasi eta azaroaren 21 arte.
- **Parte-hartzaileak:** sei gehienez.
- **Ordaindu beharrekoa:** 40 euro.
- **Gidaria:** Joseba Barandiaran.

Ikastaroan zehar, Arkaitz Martin Gipuzkoako Arrantza Federazioko ibai-zainak erreka eta arrantzako legislazio eta dokumentazio guztia erakutsiko du, eta Olaia Garcia Bisitarien Etxeko langileak Leitzarango bioaniztasunari buruzko eta ibaiaren ingurumen ardurari buruzko hitzaldia emango du.

Informazio gehiago, izena emateko: info@leitzaranean-andoain.eus.
Telefonoa: 943 300 929.

bilaka daiteke, baina ez gara jabetzen gertu-gertu zer daukagun. Gipuzkoan, Araxexen eta Leitzaranean egin daiteke arrantza intentsiboa, eta estatu osoko (Madril, Katalunia, Asturias, Gaztela...) makina bat arrantzale bertaratu ohi da, negu partean ia ez daukatelako beste tokirik, arrantza praktikatzeko.



andoainDARRA
euskaraz

"EGUN, GAZTEEN ARTEAN EZ DA ARRANTZARAKO ZALETASUNA SUSTATZEN"

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

EH BILDU ANDOAIN

Lanerako mahai baten proposamena

Igandean hilabete bete zen EH Bilduk proposamen bat erregistratu zuela. Proposamen horren arabera, N-1aren gaiak dituen korapiloak askatzen joateko, lanerako mahai egonkor bat sortuko litzateke. Bertan, udaleko alderdi eta teknikariek gain, parte hartu nahi duten herri eragile edo auzo elkarteek parte hartuko lukete. Eztabaidak iraun artean, zarata gutxitzeko neurriak adostuko lirateke GFA-rekin.

Hilabete pasa da, eta legez horrela egin behar badute ere, ez dugu erantzun ofizialik jaso. Udal Gobernu honen jarrera gero eta harroagoa da. Gurekiko, Andoingo lehen indar politikoarekiko, duten jarrera eta errespetu falta, alderdien arteko giroari eragiteaz gain, udaletxe-ko funtzionamendu demokratikoa bera kaltetzen ari da. Jarrera honen atzean arrazoi bat

dago. Andoingo PSE-EE alderdiak, lehen EAJ-PNVk egin bezala, N-1aren gaian Andoingo herriaren interes estrategikoak baztertu, eta bere alderdiak agindutakoa betetzea erabaki du: Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatzen duen proiektuari bide emango diote.

Albiste txarra da hori. Urteetan zehar egon den adostasuna behin betiko hausten da. Eta lehen aldiz, Andoingo Alkate batek, N-1 errepidea herrigunetik ateratzearen alde lan egiteari utziko dio. Andoainek beste zerbait behar eta merezi du.

HILABETE PASA DA, ETA EZ DUGU ORAINDIK ERANTZUN OFIZIALIK JASO

IRITZIA

MIKEL ARBERAS ANDOAIN

Sasi-kazetaritza eta morboa

Azken astean zeresan handia eman du EHUn izandako gertakariak, eta horren gainean egoniko prentsaren trataerak. Hori gutxi balitz, Gazte Koordinadora Sozialistako kideei diana bat ezarri die *El Mundo* hedabideak ETArekin erlazionatu ostean. Ez da harritzekoa, horrelako milaka adibide baitaude eta etorkizunean ere egongo baitira.

Morboaren bila doaz, eta horretarako edonorekin hitz egin edo pribatutasuna urratzea ez die batere axola. Joan zen asteke unibertsitateko gertakariaren harira, *El Diario Vasco* egunkaria Andoingo bazterrak nahasten aritu zen: Aita Larra-mendi ikastolarekin eta Euskalduna futbol taldearekin kontaktuan jarri zen; herriko merkatariekin ere hitz egiten ahalegindu eta norbanakoeekin kontaktatzen aritu zen.

Horrelako jokabideek kazetaritzaren benetako helburua

desbideratu eta gure lanbidea zikintzen dute. Esandako guztiarekin, ez dira gutxi sare sozialetan kazetarien aurka idatzitako mezuak. Ultergarria iruditzen zait; herritarrak jo puntuan jarri, informazioa lortzeko edonora jo eta gertakari batetik nobela bat sortu baitute sarritan. Horrek zer pentsatu eman zidan, eta bi txio idatzi nituen DVren jokamoldea kritikatzuz. Andoingo bazterrak ezker-eskuin nahasteagatik, eta, bistaz bada ere, ezagutzen ditudan pertsonak erasateagatik.

Bestelako kazetariak ere badaude. Informatzeko lanean dihardutenak, edozer gauza zabaldu baino lehen bi aldiz pentsatzen dutenak eta gertakariak gain, lagunak, familia eta ingurukoak ere kontuan hartzen dituztenak. Nire kasuan, tokiko hedabide batean lan egin dut eta benetako kazetaritza baten aldeko apustua egin ohi dugula

iruditzen zait, beste askok bezalaxe. Geure kasuan, egoera zail askori buruz informazioa suertatu zaigu, baina arduraz jokatu behar izan dugunean, erantzun ona eman dugula iruditzen zait. Esan beharra dago, batzuetan, zaila dela albistearren gaineko informazioa modu egokian ematea, faktore asko sartzen baitira tartean; baina argi dago, azken egunetan ikusi duguna sare sozialetan 'klik' mordoak lortzeko saiakera izan dela. Noski, kazetaritza lana zikinduta eta pribatutasuna zapalduta.

EHUko gertakariarekin eta Gazte Koordinadora Sozialistari eginiko sasi-erreportajearekin bezalaxe, gehiagotan argitaratuko dira horrelakoak, zoritxarrez. Etiketik ihes egin eta kode deontologikoa zapaltzen dituztenak. Nolanahi ere, beti egongo dira, kalitatezko kazetaritza bultzatzen saiatzen diren komunikatzaileak eta hedabideak.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etkez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:

Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoainDARRA
euskaraz

"Eguraldi onarekin jendea errazago animatzen da"

MIGEL MARI OIARTZABAL *GORRI* LOREZAINA

Santu Guztien Eguna iristear da, inguruko hilerriak lorez betetzen diren sasoia. Erretiroa hartuta egonik ere, egun hauetan zabalik dago Istuitza loredenda

Erredakzioa ANDOAIN
Normaltasunaren itxura hartuko du aurtengo Santu Guztien Eguneko ospakizunak. Eskaeran nabaritzen ari al zarete hori?
Iaz ere, nahiz eta ez ohiko egoera izan, eskaera asko izan genuen. Lan gehiago egin behar izan genuen, hori bai. Zergatik? Askok etortzerik ez zutelako, eta telefonoz egiten zuten eskaera. Mugitu behar izan genuen eta uste baino gehiago saldu genuen. Aurten ikusten ari gara bezeroak zuzenean hona hurbiltzen ari direla. Andoainen panteoiak beti bezala garbitu ditugu.
Donostian ere saltzen dituzu loreak.
Berrogei urtetik gora dira Polloeko hilerriaren aurrean postua jartzan dugula. Urriaren 30etik azaroaren 1era han izango gara, eta baita Arimen Egunean ere. Azaroaren 2an, alegia.



Karrikan dago Istuitza loredenda. AIURRI

Azken orduan jende asko ibiltzen al da?
Giroaren arabera izaten da. Eguraldi onarekin adineko jendea errazago animatzen da, ohitura ez galtzeko. Adinekoak gehiago hurbiltzen

dira, seme-alabak lagunduta. Errezoa egin eta lotura zuzena dute hildakoarekin. Etxean daudela, noski, ez dituzte joandakoak ahazten baina hilerriara joanda lotura estuagoa sortzen da.

Belaunaldi berriek ekitaldi sinboliko modura baliatzen dute eguna. Larrosa bat edo sorta bat hartzen dute, errausketa asko handitu delako. Asko eta asko ez dira hilerriara joan ere egiten. Donostian, adibidez, itsasoan larrosa asko botatzen da.
Urriaren 31n eta azaroaren 1ean negozioa zabalik izango duzue?
Bai, noski. Urtean zehar itxita dugu, 69 urterekin erretiratuta bainago. Baina gizarte segurantzatik urteko sasoi honetan lan egiteko aukera ematen digute.
Faltan botatzen duzu lanean ari zineneko garaia?
Ez. Baserrian lana ez baita inoiz falta izaten. Geldirik egoteko tarterik ez dugu.
Zure ikuspegitik nola aldatu da merkataritza?
Asko aldatu da. Orain gehien saltzen den lorea Ameriketatik dator. Kolonbiako klabelina erabiltzen dugu %80an. Dagoeneko ez da hemen egiten. Gurutzeak, koroak eta zentroak nagusitzen ziren lehen. Eta orain zentroak edo lore-sortak.

ISTUITZA GARDEN LOREAK ZABALIK DAGO EGUN HAUETAN. TELEFONO ZENBAKIA: 943 59 24 48.

DEIALDIA

Bularreko minbiziaren aurkako eguna



Ormendi kirolakekoek keinu polita izan zuten nazioarteko egunaren harira. AIURRI

Minbiziaren aurka Gipuzkoan elkartek "Batzen gaituzten loturak" proiektua aurkeztu du Bularreko Minbiziaren aurkako Munduko Egunaren harira. Azterlanak egin dituzte, eta baita ondorioak atera ere. Horietako bat informazioari dagokio. Komunikabideetan minbizia lantzen den moduari dagokionez, kaltetu gehienak ez direla identifikatuta sentitzen egiaztatu dute eta hori aldatzeko errealitatera gehiago hurbiltzera animatu nahi dituzte kazetariak. Erabilitako terminologiari dagokionez, "borroka" edo "bataila" bezalako hitzak komunikazioan asko erabiltzen direla azaldu dute. Euren ustean, ez da kaltetuen gaixotasuna islatzeko modu egokiena.

EFEMERIDEA

Lanen etenaldia Azpikolako harrobian

2011ko urriaren 27an Azpikolako harrobiaren sarbidean baimenik gabe lanean ari ziren jarduna gerarazi zuen Andoaingo Udalak. Duela hamar urte Ana Carrere Andoaingo alkatea bi udaltzainen laguntzarekin harrobiaren sarbidera bertaratu zen eta lanean aritzeko baimenik ez zutela ohartarazi zien lanean ari zirenei. Udaltzaingoak txostena idatzi zuen enpresa eraikitzailearen aurkako espedientea irekiz. Epaibide luzearen ostean arrazoia Udalari eman zioten epaileek.

GORA ETA BEHERA



Geroz eta baliabide gutxiago bezeroentzat

Banketxeen joera "doikuntzak" egitea da, eta horrek zuzenean bezeroari eragiten dio. Izan ere, baliabideetan murrizketak ematen ari dira. Sabadell Guipuzcoanok andoaindar ugari zuzeneko zerbitzurik gabe utzi ditu. Kutxabanke, aldiz, geroz eta baliabide gutxiago ditu Andoainen.



AIURRI

DEIALDIA

Manifestaziorako deia luzatu du Sare ekimenak

Sare Herriarrak "Ibilian-Ibilian, etxerako bidean!" lelopean manifestazioa deitu du datorren urriaren 23rako. Donostiako Antiguatik abiatuko da, arratsaldeko 17.00etan hasita. Deitzaileen ahotan, "etapa berri bati hasiera ematen ari gara; urrutze politika atzean utzi eta euskal preso eta iheslarien etxerako bidea egiteko etapari". Bi aldarri nagusiren baitan dihardute lanean: euskal preso guztien herriratzean eta graduen progresioan.



IRITZIA

XABIER LASA ANDOAIN

Nolako istorioa eta pertsonaiak, halako kontakizuna

Maria San Miguel aktore eta zuzendariaren antzerki konpainiak "Rescaldos de paz y violencia" izeneko proiektua edo trilogia osatu du azken urtetan, euskal auzia gaitzat hartuta; hots, *Proyecto 43-2*, *La mirada en el otro* eta, *Viaje al fin de la noche* izenburuko obrekin. Lehen eta hirugarrena ikusi ahal izan ditugu egunotan Andoainen eta Lasarte-Orian, bi udalen bizikidetzatza mahaiek antolatuta. Ikusi ezin izan dugun bigarrenari buruz, berriz, adierazi zaigu *Maixabel* filmaren eskema jarraitzen duela –nahiz eta dena aitortzera, antzerkia lehenago gorpuztua izan–.

Trilogiaren indarra

Baditu azpimarratzeko balioak Valladolid-Madrileko San Migelen antzerki taldeak. Hasteko, dokumentazio lan bat daukala egina, aurrez; hots, elkarrizketa mordoa eginda, euskal gatazkaren alde biolentoa modu batera edo bestera sufritu duen jendearekin.

Egongo dira antzerkia-trilogia nik baino ikuspegi artistiko-profesional sendoago batetik epaituko dutenak, baina antzerki zale soil baten begietatik, esango nuke bost antzerkilariek lan bikaina egiten dutela, sinesgarritasuna transmititzen dutela betetzen dituzten paperetan.

Balio erantsi gisa gainera, antzeppen ostean, aktoreek ikusleen aurrean jartzeko auserdia hartzen dute, horiek bertutuan jarduteko.

Bi solasaldi horietan, San Miguelek argi adierazi zuen zer nahi zuen lortu trilogiarekin: biolentziak eragindako min pertsonalen kanporatzea eszenifikatu, ariketa enpatikoa eginez norberaren mina besteekin partekatu, eta, azken batean, pedagogia egin euskal testuinguruko memoriaren inguruan.

Irudipena dut taldeak kemenez aldarrikatzen duela, eta lortzen, mezu garbi bat zabaltzea: antzerkia kultur adierazpenik zintzoena eta sinesgarriena izan daitekeela bizipen biolentoei utzitako zauri pertsonalak des-



Alfonso Mendiguchia, Aurora Herrero, Patricia Estremera, Maria San Miguel eta Pablo Rodriguez aktoreak Bastero Kulturunean, solasaldian. AIURRI

kribatzeko orduan. Antzerkia, zinema edo literatura baino indartsuagoa izan daitekeela egite horretan. Antzoki batean, zuzen-zuzenean, aktoreen eta ikusleen artean sortzen den sinbiosia ezin baitezake berdindu ez zineak ez literaturak. Hori aldarrikatzen dute antzerkigileek, eta bat nator uste horrekin.

Trilogiaren ahulezia

Aurretik adierazi behar dut ez dudala sinesten biolentziak markatutako etapa historiko bati buruzko "kontakizun partekatu" batean. Ez daudelako mota bakarreko ez biktimak ezta biktimen eragileak, hasteko eta behin. Asko jota, giza eskubideen urraketen deskribapen aseptiko bezain zorrotz bat edukitzera aspiro dezakegu; eta hortik aurrera, nahi duenak nahi duen kontakizuna defenda dezala. *Patria* eta *Maixabel*-ek zerbait erakutsi badigute, honako logika da: biolentziatzeko iragana gogoan hartuta nolako kontakizuna nahi duzun zabaldu, halako pertsonajeak eta egoerak hautatu eta deskribatu beharko dituzula.

Logika horri eusten dio antzerki-trilogiak ere, eta diskurtso politiko jakin bat transmititzen digu. Jakina, zilegitasun osoa dauka hori egiteko. Ezer

kritikatzekotan, asmo hori garbi ez azaltzea da, eta zintzo jakatu ordez, ikusleari adieraztea politikaren gainetik dauden giza sentimenduetan sakontzeko antzerkia egiten dela.

Goazemazue bi antzerkiak aztertzea. Andoainen taularututako lehenbiziko antzezlanaren sinopsiak "Bost pertsona errealtateari buruzko bost pertzepziorekin" dio, eta espektatiba handiak zabaltzen zaizkio antzerki zaleari, euskal herriarren arteko pentsamendu aniztasuna erretratatzeko zaio-lakoan. Baina zerekin egiten du topo? ETak inongo erantzukizun politikorik ez zuen gizon anonimoko bat hiltzen du, eta handik hamar urtera, bost pertsona biltzen dira afari batean: hildakoaren alarguna eta bi seme alaba, eta familiaren bi lagun. Azken bi horietako bat gizarteko "gehiengo isileko" kidea da, eta bestea, ezker abertzaleko kidea da, hiltzaileen konplize edo antzeko aurkeztzen zaiguna. Beste hitzetan esanda, hamarkadetan dinamika biolentoa gerta zedin inongo ardurarik eduki ez duten lau, eta nola halako ardura eduki duen bat.

Lasarte-Orian ikusitako antzerkian, berriz, ETak hildako emakume errugabe baten semearen eta GALEk hildako ETA-

kide hiltzaile baten alabaren arteko solasa antzeztzen zaigu. Apolitikoa da semea, eta kontrara, alabak, ETaren borroka armatua ulertu-justifikatzen du.

Trilogian, guztira, bederatzi pertsonaje taularatzen dira: lehen aipatu zazpiak gehi bigarren antzerkiko beste biak (ETAkide damutua eta berak hildako baten alarguna).

Bi taldetan lerratzen dira guztiak: batean, sei kide, biolentziatzeko errealtatean ardurarik eduki ez arren biktima bilakatu direnak; eta bestean, "mundu biolentoko" hiru partaide, horietako bat erabat damutu dena, eta beste biak borroka armatua legitimotzat jotzen segitzen dutenak nahiz eta ETaren biktimen minarekin enpatia sentitu. Alegia, azken hiru horiek, beste taldeko seiak ez bezala, "jatorrizko bekatua" bizkarrean dutela agertzen dira.

Horixe da antzerki-trilogiaren planteamendua esentzian, eta beraz, nekez pentsa daiteke intenzionalitatez ez dagoenik pertsonajeen eta beren profilen hautaketan. Azken batean, hautaketa definitu horrek erabat markatzen du antzerkiak gatazkari buruz erakusten duen ikuskerak.

Hara adibide ilustragarri bat, ideia hori azaltzeko: Lasarte-

Orian antzerkiaren osteko tertulian, intsumituak defendatu zituen Donostiako abokatu baketzale batek hartu zuen hitza, eta 80ko hamarkadan hiru aldiz atxilotu eta hirutan torturatu zutela kontatu zigun, barru-minak tarteka hizketaldia eteten zion arren. Maria San Miguelen antzerki taldeak ikusle hori eta bere torturatzailleetako bat oinarritzat hartuta laugarren antzerkia egin beharko balu, ziur komerkiak izango lituzkela gaiari nondik heldu asmatzeko orduan, euskal gatazkaz osatuta daukan ikuspegia auzitan jartzea ekarriko bailioke horrek.

Hemen, gurean, nork bere "errelatoa" gizarteratu nahi du, eta horixe argi utzi digu PSE alderdiaren esku dagoen Foru Aldundiko Kultura sailak egunotan. ETaren amaieraren 10. urteurrenarekin batera hiru ekitaldi mota antolatu ditu: ikastetxetan hiru antzerki horien antzezpina eta ondoren solasaldiak biktima, politiko, historialari, kazetari eta gizarte-elkarteetako kideekin; egile askoren artikuluekin aldizkari berezi bat; eta, ETA eta euskal kultura jorratzen duen erakusketa bat. Parte-hartzaile izateko nortzuk kontratatu dituzten ikusita, argi dago antolatzaileak ederki saiatu direla ideologikoki gertukoak izan zitezen.



Urnietako intzidentzia-tasa metatua oso altua da Urnietan. AIURRI

Agerraldi berri batek 23 kasu berri eragin ditu Urnietan

Urriaren 14tik 17ra agertu ziren kasu horiek guztiak, eta ondorioz Urnieta eremu gorrian sartu da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Urriaren 11z geroztik koronabirusari lotutako datuak astean behin eskaintzen hasi da Osasun Saila. Eta sistema berria ezarri zen bigarren astelehenean Urnietako datuetan ezustekoa eman da. Urriaren 18an eskaintako datuen arabera, urriaren 14tik 17ra 23 kasu berri agertu ziren, eta horren ondorioz intzidentzia-tasa metatua 434,85ekoa da. Eremu gorrian sartu da beraz, Urnieta. LABI indarrean zegoen neurri bereziak ezartzen ziren, baina gaurkoz ez da neurririk hartuko.

Urnietako datuen garapena

- Irailak 27-Urriak 3: 6 positibo, 241,58ko intzidentzia-tasa metatua.
 - Urriak 4-10: 4 positibo, 161,06ko intzidentzia-tasa metatua.
 - Urriak 11-17: 23 positibo, 434,85ko intzidentzia-tasa metatua.
- LABI desegiteko erabakia hartu bada ere, Gipuzkoa eta Urnieta ez dira azken asteetan 60ko intzidentzia-tasa metatuaren azpitik egon. Gipuzkoa eremu horian dago, eta Urnietan berdera iristeko aste bat baino gehiago beharko da.

Terrazen ordenantza berrituko du Urnietako Udalak

Aldaketak proposatzeko aukera dute herritarrek Urnieta.eus webguneko "Udal araudia" atalean sartuta

Erredazioa URNIETA

Bide publikoetan terrazak jartzeko ordenantza berria lantzen ari da Urnietako Udalak. Dagoneko webgunean ikusgai dago dokumentua eta bertan zehazten dira, besteak beste, zer terraza mota instalatu ahal izango diren, zer baldintza eta betebeharrak bete beharko dituzten, zein denboraldi eta ordutegiren mende egongo diren, eta zer prozedurari jarraituko zaion baimenak emateko orduan.

Udalak ohar bidez aditzera eman duenez, "ordenantza honen

xedea espazio publikoaren erabilera arautzea da, ostalaritza jarduera modu egoki eta kontrolatua egin dadin, esaterako, bide publikoan pertsona guztien irisgarritasuna bermatuz".

Udalak proposamena lantzeko parte hartzea eskatu du: "Aldatu daitekeen proposamena da, eta, horretarako, interesa duen edonork ekarpenak aurkeztu ahal izango ditu hilaren 31ra arte". Epe hori igarotakoan, jasotako proposamenak aztertuko eta ordenantza jendarean jarriko dute.

Andoainen 5 positibo agertu dira 14 egunetan

Datu horiekin eremu berdean dago Andoain, 33,36ko intzidentzia-tasa metatuarekin

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Osasun agintariek nahiko luke Andoainen ematen ari den garapena Euskadi osoan joera izatea. Astez aste jaisten ari baita intzidentzia-tasa metatua. Aldiz, Gipuzkoako eta Euskadiko intzidentzia-tasaren joera goranzkoa da.

Urriak 4, astelehena:

- Andoain: 60,05.
- Urnieta: 241,58.
- Gipuzkoa: 68,85.
- Euskadi: 63,28.

Urriak 11, astelehena:

- Andoain: 40,03.
- Urnieta: 161,06.
- Gipuzkoa: 65,65.
- Euskadi: 56,60.

Urriak 18, astelehena:

- Andoain: 33,36.
- Urnieta: 434,85.
- Gipuzkoa: 73,15.
- Euskadi: 63,64.

Haurrak ere bai ekimenak protesta egin du

Urriaren 18an hainbat ikastetxeen atarian protesta ekitaldia burutu zuten gurasoek, Haurrak ere bai ekimenak deituta. Hauexek arrazoiak: "Euskal Herriko hezkuntza-komunitateak planto egin dugu haurrak babesteko. Ezetz esaten diogu 6-12 urteko haurrentzat kanpoaldean maskara jartzeko betebeharrari. Agintariei eskatzen diegu haurren eta nerabeen beharrezan eta ezaggarriak kontuan har ditzatela haurren eta nerabeen inguruan erabakitze orduan". Eskolan aire zabalean maskarekin egon behar diren argudioari ez diote zentzurik aurkitzen. Haurrak herriko parketan eta plazetan maskararik gabe dabilteaz.



Bingen Zupiria. IREKIA

Zuhurtzia eskatu du Bingen Zupiria bozeramaileak

Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak zuhurtziaz jokatzeko deia egin zuen, astearteko agerraldian: "Une honetan ez dira osasun arlotik ezarrita dauden neurri horiek bertan behera uzteko baldintzak betetzen. Zuhurtzarako dei bat egin nahiko nuke. Joan den asteaz geroztik kutsatzeak ugaltzen ari dira. Intzidentzia metatu ere igotzen ari da eta ikusten ari gara momentu askotan eta toki askotan jende pilaketak gertatzen ari direla. Ez dira betetzen gutxeneko osasun neurriak, ez ditugu pertsonen arteko distantziak mantentzen eta ez dugu behar den bezala maskara erabiltzen".

NIRE USTEZ

URKO VALLEJO
ANDOAIN

Gutaz barrezka ari dira?

Eusko Jaurlaritzak LABI desegin du, eta egunero pandemiaren datuak emateari utzi dio. Ondorioz, komunikabideetan astean behin bakarrik azaltzen dira gaur egun, normalean, pandemiaren inguruko informazioak.

Beste era batera esanda, Eusko Jaurlaritzak pandemia ahaztu dezagun, urratsak eman ditu. Orain harritu egiten dira, "osasun arauak" betetzen ez ditugulako? Gutaz barrezka ari dira? Zer uste zuten? Horren inozentek dira?

Eta neurriak ez dituela gehiago arinduko dio. Zein neurri? Musukoak barrualdeetan derrigortzea, nik dakidala, estatuaren neurria da. Beraz, Eusko Jaurlaritzaren neurri bakarrenetarikoa, 6-12 urteko haurrak bost-bederatzi orduz, eskoletan, musukoarekin zigortzea da. 6-12 urteko haurrek osasun arauak ez betetzearen ardura dutela adierazi nahi digute? Lotsagarria.

SAREAN





Aste honetan abiatu da ikastaroa Urigainen, Clara Wolfram eskutik. TURRUNE.COM

"Ahalduntzeko bide bat da erotikaz hausnartzea"

CLARA WOLFRAM PEREZ TERAPEUTA

Erotika hizpide izaten ari da Andoaingo Jabekuntza Eskolako ikastaroan. Sentitzen dena azaleratzeko eta desira eragiten duenarekin topo egiteko aukera bermatzen du

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

Desirak, beldurak, fantasiak eta plazerak oinarri, askotariko ariketek osatzen dute tailerra, nork bere burua ezagutzea xede. Urriaren 18an ekin zioten lan-tegiari eta, salbuespenak salbuespen, astelehenero bilduko dira arratsaldeetan, abendura bitartean.

Zertaz ari gara erotikaz mintzo garenean?

Pertsona guztiok dugun dimentsio bat da erotika, adierazpen bide bat, beti presente dagoena

geure bizitzan, geure baitan. Gure plazerekin konektatzeko gaitasuna da, besteekin zein geure buruarekin harremantzeko modua.

Irudimenerako bide ere ba al da?

Gure gorputzean elkartzen dira pentsamenduak zein fantasiak; elkartzen dira sentsazio fisikoak, emozioak eta baita geure buruak sortzen dituen irudiak ere. Hori guztia materia erotikoa da. Gure osagai dira.

Berezkooa al du gizakiak aipatutako dimentsio hori?

Noski. Halere, aldakorra da toki batetik bestera erotika ulertzeko eta begiratzeko modua, baita une historikoei erreparatuz gero ere. Gizakiak berezkooa du erotikaz, plazera bilatzen du: haurrak garelarik, gorputza aztertzen dugu eta mina saihesten ahalegintzen gara. Plazera bilaketa horretan gorputzek erregistratu egiten dute zer duten gustuko eta zer ez. Haurtzaroko bide horri eutsiko bagenio adinean aurrera egin ahala, ziur aski, harreman osa-

luntsuagoak izango genituzke. Alabaina, gure gizartean mugatu egin dugu zurrunki zer den erotikoa eta zer ez. Gehiegi lotu dugu erotika irudi jakin batekin, eta sinesmen sexistez josita dago hori.

Baldintzatzen al dute generoak eta arau sozialek erotismoarekin norbanakoak duen harremana?

Ispiluan begiratzean, ez gara gai garen bezala ikusteko edo balioztatzeke geure burua. Beti daukagu muga bat... Gizarte honetan, zer dago emakume baten gorputzean, jarreran ongi ikusia? Hala, topo egiten dugu guretzat, emakumeentzat, kontraesankorrak diren irizpideekin: "Gure gorputzari balioa eman-go zaio, baldin eta desiragarria bada".

Hari horri tiraka, zer da desiragarri izatea? Begirada matxista batek erabaki ohi du hori gure gizartean. Irudiaren garaian bizi gara: bular handiak, argaltasuna, ipurdia... Objektu bihurtu dute emakumearen gorputza, sentitzen ez dugun subjektuak bagina lez.

Ondorioz, ispiluaren aurrean ideal horrekin alderatzen dugu geure gorputza, eta horren arabera erabakitzen dugu ea me-rezi dugun jendearengana hurbiltzea, ea eskubidea dugun gure desira adierazteko libreki eta abar. Gizonezkoek ere badituzte eredu fisiko mugatzaileak, baita beste hamaika genero-agindu ere; alabaina, haurtzarotik ez dute gure ideia bera jaso: desiragarria bazara balio duzu soilik.

Presio estetikoak daukagu, baita moralak ere. Izan ere, batetik, desiragarriak izan behar gara; bestetik, berriz, gure sexu adierazpena ezin da agerikoa izan. Aipatutako ideia horiek guztiak desegin nahi ditut ikastaroan. **Noiz izaten du gizakiak lehen harremana erotikarekin?**

Laztantz gaituzten gorputze-kin daukagu gure lehen harreman erotikoa, eta geure buruarekin, jakina. Haurrak, esaterako, masturbatu egiten dira, edo gustuko dute elkarri kilimak egitea; ez dute bereizten zer den

sexuala eta zer ez. Bereizketa hori aldakorra da kultura batetik bestera. Zeri ematen dioguk sexu kutsua? Erreproduktzioari lotutako egoerei, genitalen lotura zuzena duten praktikei eta orgasmora bideratzen gaituzten ekintzei. Ez diogu sexua deitzen erotika orokorrango bati, sentitu dezakegunari norbaitek gure gorputza laztantzen duenean, adibidez. Nork bere modura sentitzen ditu emozioak; batzuk itzaletik, besteak argitik, baina guztiok egiten ditugu gauzak mundua gugana erakartzeko.

Noiz arte irauten du erotikak giza-kiongan?

Ugalketa garaiarekin lotzen dugu erotika. Horregatik, adineko emakume bat ikusten dugunean, nolabait, kostatzen zaigu ohartzea berak ere bere plazerak, gogoak zein formak dituela. Alabaina, izan baditu, zeren gorputzak hil arte sentitzen baitu, minerako eta plazererako gaitasuna dauka eta hori ez da desagertzen. Behar bada, esztazio-mailak behera egin dezake adinean aurrera egin ahala, baina gure gorputzak beti behar du kontaktu osasuntsua. Azala da plazera sentitzeko dugun bide zuzenena.

Adinarekin aldatu egiten al da erotismoarekin norbanakoak duen harremana?

Gertatzen da batzuetan ez dugula geure desirarekin bat egiten, edo ez dugula geure gorputza polita ikusten. Ondorioz, maiz, kontaktu fisikoak saihesten dugu beldurrengatik, epaitua izateagatik, ez garelako sexiak sentitzen... Baina, finean, plazera adierazten duen gorputz oro da desiragarri.

Behar bezainbesteko denbora hartzen al du norbanakoak bere erotismoari erreparatzeko?

Gero eta gehiago jozen dugu fantasiazko erotikara, harreman birtualen bitartez, kasu. Ondorioz, aurrez aurreko harremanetarako denbora tarte laburragoa hartzen dugu; zer da, baina, harreman fisikoak? Pertsona bat aurrean izatea, kontaktua izatea, adieraztea zein negoziatzea zer nahi duzun, esperimentatzea... Horretarako denbora behar da, eta horrelako ikastaroak, esaterako, aukera ederra dira nork bere buruarentzat denbora hartzeko eta, gorputzetik abiatuta, sentsazioekin nahiz pentsamenduak bat egiteko.

**"AIPUA BEHERAINO
BETE AIPUA
BEHERAINO BETE
AIPUA BEHERAINO
BETE AIPUA**

Zein mezu zabaltzen du erotismoaz egun gehien kontsumitzen den pornografia ereduak zein industria zinematografikoak?

Begirada azkar batekin erreparatuta aferari, esango nuke diskurtso matxista dutela edukiek oinarrian. Oraindik ere ikusten ditut emakumeen gorputzak objektualizatuta: gorputz atal jakinak erakusten dituzte planoek, penetrazioa bideratutako praktikak dira nagusi... Imaginario faltsua saltzen dute. Faltsua zergatik? Ikerketek agerian utzi dutelako 10 emakumetik 7 ez direla orgasmora iristen soilik penetrazioarekin, esate baterako.

Gorputza zatitu egiten dute diskurtso horiek: alde batetik, genitalak; beste alde batetik, erotikotzat jotzen ez diren beste atalak. Baina hori ez da errealtatea. Gorputz osoak sentitzen du, eta garrantzitsua da osotasun horri balioa ematea, energia genitala ez delako gure plazerrako iturri bakarra. Euskarri horietan jasotzen ditugun mezuak erotizatuta daude, alegia, eszizante gisa aurkezten zaizkigu zenbait egoera, eta, egiazki, errealtatera eramanda, emakume oso gutxi errentzat dira plazererako bide. Horrela, egoera deserosoak pilatzen joaten dira emakumeen gorputzetan: "Nik ez dut modu honetan ongi pasatzen. Ondorioz, nahiago dut, beharbada, ez ligatu, ea berriro egingo ote dudan topo nahi ez dudan egoera batean eta ez dudan jakingo hori adierazten". Horrenbestez, ikastaroan aitor-tza egingo zaio sentitzen den horri. Mesedegarria da gorputzari jaramon egitea, badakielako zer duen gustuko eta zer ez.

Hori horrela, Andoaingo Jabekuntza Eskolaren bidez, horretaz guz-

Ikastaroan izena emateko aukera zabalik

Astelehenean hasi bazen ere, oraindik ere ikastaroan izena emateko aukera dagoela gogorarazi nahi du Berdintasun sailak. Hauexek ikastaroaren xehetasunak:

- Datak: Urriak 25; azaroak 8, 15, 22, 29; abenduak 13, 20
- Eguna: Astelehena.
- Ordutegia: 17:30-19:30.
- Tokia: Urigain.
- Informazioa: jabekuntza.andoain.eus.
- Telefonoa: 943 300 830. Luzapena: 380-397.
- E-posta: berdintasuna@andoain.eus.

tiaz hitz egiteko tartea hartu nahi duzu. Nolako ikastaroa izango da?

Oso praktikoa izango da. Ariketak egingo ditugu, bai geure buruarekin, bai ingurukoekin; eta horien ostean, gogoeta egiteko aukera ere izango dugu, betiere bakoitzaren gogoak eta mugak errespetatuta, alegia, inork ez du egingo egin nahi ez duen ezer, eta errespetatu egingo zaio. Hemen beti errespetatzen da bakoitzaren uneko gogoak, hots, inori ez zaio ezertara behartuko. Esperimentatzeko eta jolasteko espazio bat izango da, elkarrekin egoteko. Finean, nork bere burua hobeto ezagutzeko aukera bermatzen du ikastaroak. Autoezagutzatik abiatuta, ahalduzko bide bat da erotikaz hausnartzea.

Txitibar itxi dute

Andoaingo taberna-jatetxeak igandean itxi zuen negozioa, 2004an hasitako ibilbideari amaiera emanez. Ibon eta Leire Otegi ziren tabernaren aurpegi ezagunenak eta eurengan egon da azken sasoi honetako ardura nagusia. Zumea plazan 2004an ireki zen lehen taberna izan zen, aspaldian egon zen Txitibar baserrikoari jarraipena eman ziona.



AIURRI

Guipuzcoano itxita

Zumea kalea eta Kaleberria artean dagoen banketxeak ateak itxi zituen, joan zen ostiralean. Murrizketa handiak egin ditu banketxeak, ehunka bulego itxi eta milaka langilerentzat lan erregulaziorako espedienteak irekiz. Andoaingo banketxeak hamarkadak egin ditu bertan, eraikin dotorean. Bezeroek beste herritara joan beharko dute, halaberharrez.



AIURRI

Langa bota zuten

Larunbat arratsaldean altuera gainditzeko karga zeraman ibilgailu bat bertatik igaro zen eta aurretik eraman zuen 2,05 metroko altuera zehazten zuen langa. Asteburuan langarik gabe egon eta gero, astearen hasieran bere tokian ipini zuten berriro. Irailaren 10ean autoentzat zabaldu zuten pasabidea, 2017az geroztik itxita egon ondoren.



AIURRI



- **Ehunka lagun jokoan, denboraldi berrian.**
- **Adi "Aiurri" taldeari! Astero sari gozoa Arrutiren eskutik.**





Aniztasunari aitortza egiteko helburuarekin, hitzorduz betetiko egitarau aberatsa osatu zuen Etxeberri elkarteak. AIURRI

Aniztasuna islatzen duten kolore biziak

Kulturarteko Topaketa ospatu zuten iragan larunbatean Urnietan, Etxeberri Elkartearen eskutik. Hamaika herrialdetako jendea bertaratu zen, eta askotariko zaporeren, koloreren zein musikaren bateragune bihurtu zen Urnieta.

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Horia, berdea, gorria eta urdina. Askotariko kolorez osatutako oihal batekin jolasean ekin zioten haurrek pasa den larunbatean Urnietan ospatu zen Kurturarteko Topaketari. Aniztasunari aitortza egiteko helburuarekin, hitzorduz betetiko egitarau aberatsa osatu zuen Etxeberri elkarteak, Estela Cuevas bizilagunaren gidaritzapean.

Makina bat artisau bertaratu ziren, nork bere eskaintza urnietarrei erakusteko asmoz; eta ondo erakutsi, gainera. Izan ere, herritar andana bertaratu zen, eskuz egindako lanak ikustera zein gozatzeri. Afrikar jatorriko oihaletatik hasi eta burniarekin egindako pitxietara bitarte, for-

ma, usain eta kolore ezberdinetako produktuak bildu zituen azokak.

Ildo beretik, jateko nahiz edateko tartea ere izan zen. Batetik, Marokoko tea edateko aukera eduki zuten herritarrek, musikaz zein intzentsu usainez girotutako jaima berezian. Bestetik, foodtruck delakoak geldialdia egin zuen Urnietan, KM0-ko gozoak dastatzeko.

Haurrek ere izan zuten zer gozatua. Henna, ileko trenzak eta koadernoak oihal afrikarrek forratzeko tailerrak izan zituzten. Ilara luzeak sortu ziren plazako txoko ezberdinetan, baita berdeguneetan ere: kolore askotako paraxutarekin aritu ziren ordu luzez jolasean.



Estela Cuevas. AIURRI

Estela Cuevasen balorazioa

"Oso giro ona egon zen; eguraldia gure alde izan genuen, gainera. Bizilagun asko gerturatu zen; beraz, lortu nuen helburua, hain justu, urnietarrak Etxeberri plazaren bueltan biltzea. Horrez gain, askotariko herrialdetako jendea ere bertaratu zen, eta elkareragin handia egon zen postuetan. Balorazio oso positiboa egiten dut, herritar askok galdetu didate ea noiz egingo ote dudan beste bat. Muntaiaren eta desmuntaiaren laguntza handia izan nuen, baita ezezagunen partetik ere. Ezin dut gehiago eskatu; xedea lortuta".

Eta musika. Musikak garrantzia berezia izan zuen hitzorduan: Ugarte anaien txalaparta soinuak ireki zuen kontzertu-sorta. Haien atzetik, dantzan jarri zituen herritarrak Jenny Perlazak, aerorumbaren erritmopean. Bossa Nova estiloan aritu zen Luã Matheus, eta Zizoo Du Zooren eskutik afrorapaz gozatzeko parada ere izan zen. Aurreko larunbatean agerian utzi zuten horrelako hitzorduen premia.


HERRITAR ANDANA BERTARATU ZEN ETXEBERRI PLAZARA, LARUNBAT ARRATSALDEAN



AIURRI

Karime Randame eta Amal

Marokoko lurralde beroetan murgiltzeko aukera izan zuten urnietarrek, Karimeren eta Amalen eskutik. Hamaika kolorez, bertako oihalekin apandutako jaima batean tea eskaini zuten, Afrika iparraldeko musikaren laguntzaz. Beren herriko jantzi tradizionalarekin zerbitzatu zuten edaria, eta intzentsuaren usaiak herritar asko erakarri zuen.



AIURRI

Aziz Mounpe eta Maialen Mujika

Afrikar jatorriko oihal koloretsuak abiapuntu, eskaintza zabala du Puochi nah proiektuak. Wax oihalekin egiten dute lan eta tote poltsak, alkondarak, zein estutxeak egiten dituzte, besteak beste. Postuaz gain, tailer batean koadernoak apaindu zituzten haurrek beren oihalekin.

Axun Jauregi

Burnia da Axunen artisautza lanen oinarri. Joxerramon anaia aitzogilea du eta soberan den burniari bestelako erabilera ematen dio, zein baino zein bereziagoa. Soldatu egiten du, baita kolorea eman ere: eguzkiloreetatik hasi eta kandeletara bitarte, askotariko formak aurkitzen dizkio burniari.



AIURRI



AIURRI

Susana Arias, Junes eta Raduan

Idiazabal kaleko Casablanca harategia ere bertaratu zen Kulturarteko Topaketara. Marokoko zein Tunisiako produktuz bete zuten postua: fruitu lehorrak, eskuz egindako gozoak, datilak, ogiak, ilea tindatzeko henna, azalerako olio bereziak... Marokoko gastronomia gerturatu zuten larunbat arratsaldean Urnietara.



AIURRI

Papa Lo

Produktuek gainezka egiten zuten Paparen postuan, izan are, denetik saltzen du. Arropa, motxila, galtzerdiak, toailak, batetik; baina baita argia egiten duten eraztunak, pultserak eta koilareak, bestetik ere. Jende ugari gerturatu zen ipini zuen postura, jakin-min handiz.



Urnietako udala



Urnietako udaletxearen parean egin zuten agerraldia, astearte eguerdian. AIURRI

Sindikatuak ordezkariak zabala, hildako langilea gogoan hartzeko

LAB, ELA, ESK, STEILAS, EHNE eta HIRU sindikatuak elkarretaratzearekin bat egin zuten. Ordu erdiz San Juan plazan elkartu ziren, joan zen urriaren 16ko lan-heriotza deitoratzeko eta langileek pairatzen duten prekaritatea salatzen.

Erredakzioa URNIETA

Paulo Jose Fernandez Alves izena zuen urriaren 15ean Urnietako kiroldegiko eraikuntza lanetan hil zen langileak. Portugaldarra zen, eta Gasteiz-Urnietako joan-etorria egiten zuen egunero-egunero. 59 urtekoa, azpikontratatuak enpresa bantentzat egiten zuen lan, Astigarragako Pavimentos Tecnológicos Zarrarentzat zehazki. Miguel Imaz enpresa ari da kiroldegiko berritze-lanak egiten, Urnietako Udalak hala eslehituta.

ELA sindikatuak azaldu zuenez, lan istripua goizeko 08:30ak aldera izan zen. Hormigoia botatzeko lanetan ari ziren une horretan eta, ikertzeke dauden arrazoiak medio, kamioiaren besoetako batek oreka galdu, luma mugitu eta langilea kolpatu zuen. Kolpeak eragin zion

heriotza. Haren ondoan ziren bi langile gehiago arriskuan izan ziren.

Lan-istripuak berehalako zabalkundea izan zuen herrian. Sindikatuak izan ziren ezbeharraren berri ematen lehenak, 2021ean lanean hildako 50. langilea izan zela gogora ekarri. Goiz horretan bertan beste lan heriotz baten berri eman zuten, Amurrioren zehazki.

Orduak aurrera joan ahala, Udalak adierazpen bateratua argitara eman zuen eta egun horretako kultur ekitaldiak ber-

tan behera geratu ziren. Urnietako udaletxeko banderak eta Urnietak.eus webgunean doluingola beltza ipini zuten.

Bilkura ezberdinak

Iluntzean ezbeharrak salatzen lehen hitzordua egin zen, San Juan plazan. Arratsaldeko 19:00tan hasi zen eta deitzaileek zabaldu zuten afitxan Urnietako Udalari erantzukizuna eskatu zioten. Astearte eguerdian langileen ordezkarien bilkura izan zen. LAB, ELA, ESK, STEILAS, EHNE eta HIRU sindikatuak elkarretaratzean bat egin zuten. Ordu erdiz San Juan plazan isilpean elkartu ziren. Pankartaren bidez ostiraleko lan-heriotza eta langile askok pairatzen duten prekaritatea salatu zuten. Elkarretaratzea txalo artean amaitu zen.

URNIETAN HILDAKO LANGILEAK GASTEIZ-URNIETA IBILBIDEA EGITEN ZUEN EGUNERO



Kiroldegiko ikuspegia, ostiral eguerdian. AIURRI

Udalaren adierazpen instituzionala

Urnietako Udalaren Bozeramaileen Batzardeak atsekabez hartu du pertsona baten lan-istripuaren ondoriozko heriotzaren berria, Urnietan lanean ari zela ezbeharrak izan eta gero. Urnietako Udalak elkartasuna helarazi nahi die langilearen senideei, lankideei eta lagunei. Aldi berean publikoki salatu nahi dute eta bere gaitzespena adierazi, lantokian bertan bitzita galtzea eragin duen lan-ezbeharrak dela eta.

Urnietako Udalak salatu nahi du istripuak, kosta hala kosta, eta guztiaren gainetik, ekidin beharra daudela, lan mota guztietan lehenetsia izan behar baitu lan segurtasunak. Horregatik ezinbestekotzat jotzen du lan-osasunari eta segurtasunari buruzko kanpainak bultzatzen jarraitzea, bai eta lan-arriskuen prebentzioarako arauak beteaztea ere.

Hau guztiagatik, erakunde guztiei berriz ere eskatzen die lan-arriskuen prebentzioan jardunbide egokiei buruzko proiektuetan lagun dezatela, lan-administrazioarekin eta erakunde sindikal zein patronalekin koordinatuta, eta laneako segurtasunaren eta osasunaren aurkako delituak jazar ditzatela, baita ikuskapen funtzioak gehitu eta hobetu ere.

Urnietako Udalak elkartasuna eta babesa adierazi nahi dio hildakoaren familiari, eta obra udal jabetza batean egiten ari dela ikusirik, laneako agintarien eta inplikaturako agenteen esku jarri da gertatutakoa argitzen laguntzeko.



Elkarretaratzea deitu zuten ostiral arratsaldean. AIURRI

Herritar talde batek deituta

Ostiral arratsaldean gertaera salatzen lehen elkarretaratzea egin zuten. Deitzaileek Urnietako Udalari prekaritatearekin amaitzeko ardura eskatzen zioen, elkarretaratzean bertan zabaldu zuten afitxan.



Ioritz Lizeaga, Urnieta KE senior taldeko jokalaria. AIURRI

Denboraldi hasiera ona eskubaloit taldeentzat

ESKUBALOIA Urnietako eta Andoaingo senior mailako taldeak maila eta joko ona erakusten ari dira

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Quel Abogados emakumezkoen senior taldeak garaipen garrantzitsua eskuratu zuen Oskarbi Optika Legazpi taldearen aurka (17-31). Bigarren garaipena lortu dute Gipuzkoako txapelketan eta sailkapeneko lehen postuetan kokatu dira. Markagailuak bestelakoa erakusten duen arren, norgehiagoka zaila izan zen, baina urnietarrek erasoan asmatu eta defentsa sendoa erakutsi zuten. Atsedenaldira sei goleko aldearekin iritsi ziren. Azkenean, 14 goleko aldeagatik irabazi zuten.

Bestalde, Urnieta Artola Harategia gizonezkoen taldeak galdu egin zuen (25-23). Euskadiko txapelketan eduki duten lehen porrota izan arren, bigarren postuari eutsi diete urnietarrek beren multzoan. Partida oso orekatua izan zen eta memento batzuetan urnietarrak

aurretik ere joan ziren. Gizonezkoek galdu egin zuten, baina azkeneko unerarte lehiatu zuten eta sentsazio honekin itzuli ziren etxera.

Jubenilak garaile, berriro ere

Gizonezkoen jubenil taldeak garaipena eskuratu zuen Hernaniren aurka (23-27) eta sailkapeneko lehen postuan jarraitzen du. Emakumezkoen taldeak ere bi puntu lortu zituen Ormaiztegi 30-15 irabazita. Dinamika ezin hobean sartu dira jubenilak.

Leizaran taldea

Senior mailako neskak Egiaren aurka garaile izan ziren (11-32), eta gizonezkoek ere garaipena eskuratu zuten Aloña Mendiren aurka (43-21). Neskak asteburuan etxean ariko dira, Urola taldearen aurka. Larunbatean da partida, 19:30ean hasita.

Erdialdean dago Euskalduna sailkapenean

FUTBOLA Gizonezkoen erregional ohorezko mailan lehen sei jardunaldiak jokatu ostean, berdintasun handia dagoela esan daiteke. Euskalduna 10. postuan sailkatuta dago 8 punturekin, eta liderra 5 puntura dago. Tartean hamar talde dira. Urdiñek 1-0 galdu zuten aurreko asteburuan, Zarautzen aurkako partidaren. Ubitarten jokatu dute larunbat honetan, Mondragonen aurka (16:00).

Urnieta A jubenil mailako taldea, liderraren aurka

FUTBOLA Jubenil mailako 5. multzoan Arrupe eta Zarautz taldeak bost jardunalditan beste horrenbeste garaipen eskuratu dituzte. Urnieta seigarren postuan sailkatuta dago, eta asteburu honetan lehen postuan dagoen Arrupe taldea jasoko du etxean. Larunbat honetan jokatuko dute partida (15:45).

6. multzoan Euskalduna eta Urnieta B jokatzeko ari dira. Biak etxetik kanpo ariko dira.

Zumeatarra taldeko kirolariak proba ezberdinetan lehian

ATLETISMOA Donostian 5 eta 15 kilometroko lasterketan parte hartu zuten. Proba laburrean aritu ziren Aimar Sukunza, Unai Geovany, Iñigo Duarte eta Aitor Murua. Eta 15 kilometrokoan berriz Mikel Arteaga, Jon Imaz, Emilio Audicana eta Igotz Vergara. Aitor Sarasola, bestalde, Zegama-Aizkorri Mendi Duatloian parte hartu zuen. Javi Menta eta Ander Lazkano Larredo aldean ibili ziren lehian.

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Herriak egiten du herria

urriak 23 - azaroak 11

errigora.eus

Saskien balioaren %25 Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskaigintzara bideratuko da

Saski beltza 55€

Saski berdea 65€

Saski zuria 75€

Prestaketa saioekin hasi dira

TXIRRINDULARITZA Andoaingo eskolak adierazi duenez, entrenamenduekin urriaren 28an hasiko dira. Ostegunero elkartuko dira 19:00etatik 20:00etara. Interesa duenak hauexek harremanetarako bideak:

- info@andoaingo.eus.
- 688 607 024.



ANDOAINGO

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 21

URNIETA Dokumentala

"Chhaupadi", Eurne Pasabanek zuzendutako dokumentala Zanpatuz elkartaren eskutik.

19:00, *Sarobe*.

ANDOAIN Lehiaketa martxan

2022. urteko Udal egutegia osatzeko argazki-lehiaketa. Oinarriak Andoain.eus webgunean.

Azken eguna: *Urriak 31*.

URNIETA Lehiaketa martxan

2022ko egutegia osatzeko argazki-lehiaketa. Oinarriak: Urnieta.eus.

Azken eguna: *Azaroak 5*.

OSTIRALA 22

URNIETA Dokumentala

"Mendian hil, hirian hil", Iñaki Peñak zuzendutako dokumentala Zanpatuz elkartaren eskutik..

19:00, *Sarobe*.

ANDOAIN Dantza

"Amoria & Dolore", Kresala.

20:30, *Bastero*.

LARUNBATA 23

ANDOAIN Kalejira

Lebiton Andoingo erraldoi eta buruhandien konpartsaren kalejira.

"Azelaingo bikotea" erraldoien gomazko panpinen aurkezpen ekitaldia.

11:00, *irteera Zumea plaza*.

12:00, *Ekitaldia Goikoplazan*.

**URNIETA Lurdes Iriondo "Lulu" liburuaren aurkezpen-ekitaldia**

Antton Kazabonek idatzita, eta Jokin Mitxelenaen ilustrazioekin osatuta.

Urnietako sortzaile ezagunari buruzko haur ipuina.

Urriak 24, igandea. 17:00, Sarobe.

IGANDEA 24

URNIETA Aurkezpena

"Lulu Lurdes Iriondo" liburuaren aurkezpen ekitaldia.

17:00, *Sarobe*.

ANDOAIN Haur antzerkia

Italino Grand Hotel haur antzerki emanaldia. 6 urtetik gorakoentzat aurrikusita.

12:00, *Bastero*.

OSTIRALA 29

URNIETA Ipuin kontaketa

Ixabel Agirresarobe.

17:00, *Lekaio*.

LARUNBATA 30

ANDOAIN Erakusketa

"Formal formal".

Azken eguna. *Bastero*.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Oltxiak**

Larunbata, 23. 17:00.

Igandea, 24. 17:00.

Madres paralelas

Larunbata, 23. 19:30,

22:00.

Igandea, 24. 19:30.
Asti. 25. 19:30, 22:00.

URNIETA**SAROB****"Mendian hil, hirian hil"**

Ostirala, 22. 19:00.



SINOPSIS

**Madres paralelas**

Zuzendaria, Gidoia: Pedro Almodovar. **Aktoreak:** Penelope Cruz, Milena Smit, Israel Elejalde, Aitana Sanchez-Gijón, Rossy de Palma, Julieta Serrano, Carmen Flores...

Herrialdea: Espainia (2021).

Generoa: Drama. **Iraupena:** 23 minutu.

Almodovarren azken filma

Bi emakumek ospitalean elkar ezagutzen dute, erditze daudela. Bien artean oso lotura estua sortuko dute, kasualitatez garatu eta zaildu egingo dena,

eta haien bizitzetan eragin erabakigarria izango duena. Amatasuna eta bestelako hariak lotzen dira Almodovarren azken filman.



Zinema, euskaraz

Etxe berri baten bila dabilta Oltxiak, baina inon ez dira sentitzen ongi etorriak. Larunbat eta igandea arratsaldean zinema euskaraz, Bastero Kulturagunean.

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan

24 orduz izango duzu gure zerbitzua.

Salbuespenik gabe.



bertako
Igogailuak | Asistentzia

www.bertako.eus



ZURRA JAUTITAKO

OBJEKTUAK

BERRERAKUTZEA



WARRAPATZE

EDUKIAK



IGOGAILUAK

ZABATIAK



965/34/77

ARABA

945 712 822

GIPUZKOA

943 903 450

BIZKAIA

946 523 935

NAFARROA

848 870 917



Fanny Alonso Bilboko La Terminal espazioiko arduradunekin, erakusketaren irekiera egunean. ARGINDAR

Algodonerako emakumeen erakusketa Bilbon ikusgai dago

Andoainen abiatu zen erakusketa, eta Bergaran ikusgai izan zen ondoren. Bilbon izango da, bi hilabetez

Erredakzioa ANDOAIN

Andoainen eta Bergaran egon ostean, Bilbora eramane dute "Kotoiaren emakumeak-Bizi istoriak" erakusketa. Kultura industria sustatzeko sortu zen La Terminal espazioan zabaldu zuten erakusketa urriaren 14an. Abenduaren 15a bitarte egongo da ikusgai. Antolatzaileen esanetan, gure aurretik izan ziren emakumei omenaldia egin nahi zaie. "Izan ere, belaunaldi horrek modu iraingarrian lan egin zuen, familiaren zaintzan murgilduta eta harri batez bi kolpe egiten zuten. Erabat ikusezinak diren emakumeak, proiektu honen bidez nabarmendu nahi dira. Gu garena gara haien sakrifizioei esker". Asmo horri jarraiki, Andoainen Algodonera fabrika-ko emakumeak eta Bergaran hango La Algodonera de San Antonio fabrikako emakumeak gogoan hartu zituzten.

Fanny Alonso moda diseinatzailer andoaindarra da erakusketaren bultzatzaile nagusia, eta komisarioaren erantzukizuna ere bere gain hartu du. Erakusketak emakume kotoilariak modaren, musikaren, ilustrazioaren, literaturaren, argazkigintzaren... ikuspegitik islatu nahi ditu, eta horretarako hainbat kulturgileen ikuspegi artistikoak batzen ditu: Nerea Bengoetxeak abestia sortu du; Nerea Tudurik poema sorta idatzi du, Dabid Argindarrek argazkiak egin ditu; Maialen Porroyk ilustrazioak; Laura Beinek emakumeen bizitza-istorioak biltzen dituen liburua idatzi du; eta Fanny Alonsok 60ko hamarkadan inspiratutako kotoizko bilduma osatu du. Anne Galarragak egin du komunikazio lana. Bestalde, erakusketan Andoain eta Bergarako emakume langileen lekukotzak biltzen dituen audioak ere ipini dituzte.



Amaia Lezamak zuzenduko du aniztasunaren aldeko proiektua, "Aniztasunetik eraikiz" programarekin elkarlanean. KRESALA

Elkanoren lehen mundu biran oinarrituriko ikuskizuna

"Amoria & Dolore. Elcano, lehen mundubira" ikuskizuna ostiral honetan Basteron, 20:30ean hasita

Kresala

Dantza Konpainia

IKUSKIZUNA

Amoria & Dolore dantza ikuskizuna, euskal nabigazioaren urrezko aroan du sorkuntza abiapuntua. Elkanoren lehen mundubira gogora ekarriz, aintzinako musikan du inspirazio iturri nagusia, dantzaren herri adierazpenak beti izan baitu gaurkotatua, kulturaren erreferente artistiko-historiko bezala. Obrak, Elkanoren nabigazioaren urrezko aroan zehar bidaiatzen du, ikerkuntza eta berrinterpretazioa lagun, ondare artistiko eta koreografiko berria sortuz.

Hogeita hamar dantzariak herri inspirazioz gorpuztutako arte barrokoaren espresio erakusgarrian, dantza klasiko aurreko bilduma osatu dute, antzezpene era naturalean eta askean burutuz, 17 eszena dituen ballet

honetan akto bakar batean garratua, Esquivel, Iztueta eta Gadesi keinuak eta erreferentzia garbiak eginez.

Horrez gain, Artze, Etxepare eta Gleanoren poemek obra goitik bera hezurramitzen dute, poesia giltzarria bilakatuz. Bertan, euskal antzerkiaren dantza sorkuntza molde berri baten eredu aurkeztzen da, drama tradizional garaikide bat proposatuz, espazio eta denboratik kanpo kokatzen dena.

Fitxa teknikoa

- Zuzendaritza artistikoa eta koreografia: Fausti Aranzabal
- Musika: Enrike Solinis, Miren Zeberio.
- Poemak: Bernart Etxepare, Joxe Anton Artze, Eduardo Galeano.
- Antolatzaileak: Bastero, XVII. Dantza Zirkuitua, Sarea, Eusko Jaurilaritza.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak Unai
Urriaren 13an urtean bete zituen. Zorionak etxeko partetik, bereziki semea Oinatz; Unax eta Aner hiloben partetik.



ANDOAIN

Ainhoa Makazaga
Gure etxeko surfariak 28 olatu hartuko ditu aurki. Mila mila zorion!!! Gozatu bizitzaz dakizun bezala. Etxekoak



ANDOAIN

Zorionak Oier!
19 urte! Egun zoragarria opa dizugu, jarraitu beti bezain jator eta erronka berriak gaituzten. Besarkadak. Etxekoak.



ANDOAIN

Zorionak Ane!
Ane Muñozek 7 urte egingo ditu urriaren 28an. Jarraitu orain arte bezain zoriontsu urteak betetzen! Muaaaa!

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresarako klaseak. **693 692 823 - 665 719 827**

Ingeles irakasle diplomatu behar da klaseak emateko **English First Certificate** azterketa prestatzeko. **693 692 823**

Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza

laguntza **edo mintza-lagun** bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez / danesaz aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: **reflexologist45@yahoo.co.uk**

MERKATU TXIKIAN PARTE HARTZEKO

Emailaz: **diseinua@aiurri.eus**
Whatsappaz: **619 163 537**
Tel.: **943 300 732**
Bulegora etorrita: **Arantzibia 4-5, behe. Andoain**

Egunean Behin lehiaketa

Urriaren 11tik 17rako astean Egunean Behin lehiaketa ezagunean "Aiurri" taldean aritu diren jokalariek guztien artean zozketa egin eta gero, irabazlea Haizea Zabala izan da. Aste honetako lehiaketa martxan dago, aukera berria ehunka jokalarientzat. Aurreko bi aste irabazleak "Ezkide" eta "Aimar" izan dira.



AIURRI





2019ko San Juanetan, Lebiton Andoaingo Erraldoi eta Buruhandien konpartsa. Lebiton, basoko pertsonaia "gaiztoa" ezkerretik hasita bigarren buruhandia da. AIURRI

Lebiton konpartsaren berragerpena

Andoaingo Udalak antolatu duen ekitaldian, Lebiton Andoaingo Erraldoi eta Buruhandien konpartsak kalejira egingo du. 11:00tan abiatuko dira Zumea plazatik, eta kalejira 12:00tan amaituko da Goikoplazan

Erredakzioa ANDOAIN

Asteartean eta ostegunean entsegu lanak egin eta gero, konpartsa kalera irtengo da larunbat honetan. Eta haiekin batera, Tolosako dultzaineroak. Herriko hainbat haur eta gaztetxo ikusteko gogoz izango dira, pandemia tarteko denbora luzez ez baita kalejirarik egin. Eguraldiak lagunduz gero, goiz pasa polita izango da.



Azelaingo bikotea. AIURRI

Azelaingo bikotearen panpinak

Andoaingo Udalak erraldoien gomazko figura berriak aurkezteko aukera baliatuko du larunbat honetako ekitaldia. Are gehiago, erraldoien historia hobeto ezagutzeko aukera izango da Goikoplazan antolatu duten ekitaldian. Azelaingo bikotea dira egin dituzten gomazko lehen bi panpinak, eta 30 euroko prezioan salgai izango dira udalerriko hainbat merkatalgunetan. Honako hauetan: Delgado, Ernaitza eta Stop liburundendetan eta Anita, Amabi eta Pottoko merkatalgunetan. Dagoeneko salgai dira aipatu tokietan.

Larunbateko kalejira goizeko 11:00tan abiatuko da Zumea plazatik, eta eguerdiko 12:00tan amaituko da Goikoplazan.

"Gau beltza" antolatu du Magale-Salestarrak ikastetxeak

Urriaren 31n arratsaldeko 19:00tan hasiko da ospakizuna, San Juan plazan

Komunitatea

Magale ikastetxea / URNIETA

Euskal Herriko hainbat txokotan bezala, Urnietan historikoki ospatu izan den gaua da urriaren 31koa. Hain zuzen ere, usadio horri eustea eta berreskuratzen

hastea da Magaletik bultzatu nahi dena. Hala, datorren urriaren 31n, iluntzeko 19:00etan, Urnietako San Juan plazan 'Gau Beltza' ospatuko da. Gerturatzen den orok har dezake parte. Eta guztiok festan gehiago murgil-

tzeko, herritarrek arropa egokiak jantzita hurbiltzea animatu nahi dute antolatzaileek. Horretarako, etxeko 'trapu zaharrak' jantzi eta burua tapatu zakutxo batekin eta lastozko txapelarekin tapatzea besterik ez da behar. Ikastetxeko maila batzuetan bereziki landu den gaia izaki, ikasleen lanak protagonismo berezia hartuko dute ekitaldian. Horretarako, gau horretan ohikoak ziren jantziak eramateaz gain, ipuin kontaketak, 'saria-ziria' edo gaztain jatea egingo dituzte.



Gau beltza ospatuko dute San Juan plazan, urriaren 31n. MAGALE